
APEADERON Parranda!
Dantza eta irakurraldia
Dj taloMikro irekia
2026-11-13 22:00 etatik aurrera
hkl.eus

APEADERON
Parranda!
Dantza eta irakurraldia

DJ talo / Mikro irekia

2026-11-13
HERNANI



Gure besoak zabaldu egiten dira,
gure belaunak tolestu egiten dira,
gure buruek baietz esaten dute,
bularrak atzera egiten du,
bizkarra okertzen da;
jauzi egiten dugu,
sorbaldak goratzen ditugu,
ukabilak estutzen ditugu,
elkar eramaten dugu gora,
eta baita elkarrengandik aldendu ere.


Hori guztia, hizkuntza da ekintza bezainbat.
Dantzariak gara gu guztiok.
Bizitzak mugitzen gaitu,
bizitzak dantzatzen gaitu.
Hatsa bezain iragankorra,
hezurra bezain zehatza...
dantza gutaz egina da.
Espazioa zizelkatzen dugu...
Dantza egitean,
barruko espazioa eta inguratzen gaituena bizi ditugu,
eta ate bat ere irekitzen dugu,
gure emozioetarako leiho bat.

Bizitza bezala,
dantza sortu eta desegin egiten da une oro.
Maitasuna bezala, arrazoitik haratago dago.

Har dezagun gorputza leku bat bezala,
izakiak bere buruari eutsi
eta forma ematen dion lurralde bat bezala,
sorpresaz beteriko altxorren moduan,
emozioen zaintzaile aparten gisa.
Dantzatzen dugunean,
sakonki inplikatuta gaude egote horretan.

Dantzak ez du ez justifikaziorik ez azalpenik behar.
Gutaz egina dago
eta
hartan bizitzeko prest dagoen gorputz bat besterik ez du behar.

CRYSTAL PITE (koreografo kanadiarra)



1.
Festarik festa

Joseba Tapia

Nahiz gauza asko ezagutu munduan
Bada zertxobait hartu nahi dut kontuan
Ez dakit nola esplikatu kantuan
Neskatxa bat dut hemen nire onduan.

Gure bizitza juerga eta parranda
Gero egunez lo egiten dugu etzanda
Horren errudun etsaien bat izan da
Gu non gabiltzan seguru bera han da.

Festarik festa lan egin behar gauero
Festarik festa hor nabil ni egunero
Gure etsaia benetan dago ero
Zigortzen gaitu inoiz hutsegin ezkero.

Aizu neskatxa ba al dakizu benetan
Norekin hasi zeran hartu-emanetan?
Hau da egia ziur zaude horretan
Bihurtu leike maitasuna penetan.

Komplikazio anitz bada gurekin
Bizitza honi ezin diogu aldegin
Nire aukera ez bazaizu atsegin
Gure artekoa beharko da desegin

2.
Hautsak ere dantza egiten du

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Dantza egin, zure oinek
bidearen izena ahaztu arte.
Dantza egin, hautsa harrotu
eta mendiak zure gorputza antzeman arte.
Inork ez zaitu deitu.
Inork ez dizu etortzeko eskatu.
Hala ere, hemen zaude,
lurrari kolpeka,
egunen batean hartuko zaituen lurrari.
Begira zurekin dantzan ari direnei.
Nork bere musika entzuten du
musika beraren barruan.
Hamaika gorputz,
hamaika zauri,
lur bakarra.
Nor ari da dantzan?
Hautsa, beharbada.
Izar izan zela
gogoan duen hautsa,
haragi izan zela,
hauts izan zela.
Eta gaur gauean,
izar uxo batek
ezpata baten ahoa marrazten duelarik
altxatzen ikasi duen
hautsa.



3.
Gaua

ANDONI TOLOSA

Gaua da
taberna putzu
beroa eta kea
mamu
eta amodio ezinen
gaua
etsipena urrutiratu
nahian
alkoholak gorputzak
erretzen
kaleak aldatuz
mudatuz
rock and rollak
bart arratsa ametsa ez zela dioen bitartean
gaua da
trikitixa hautsiak
azken doinua eman dio
egunari
eta zurrunbiloa
jabetu da azkenik
gure gorputzez



4.
Mendi ikusezina

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Bat-batean, denok utzi genion dantzatzeari.
Gu iritsi aurretik
mendia hantxe zegoen.
Baina argi izpi bat behar izan zuen,
lerro dardarati bat,
bere silueta erakusteko.
Isiltasunak begiratzera eraman gintuen
inoiz begiratu ez genuen aldera.
Zure barruan ere
bide ikusezin bat dago.
Egunero inguratzen duzu,
zure itzalarekin nahasten duzu,
ohitu zara haren presentziara.
Argi kolpe batek
haren soslaia erakusten dizun arte.
Orduan musika itzultzen da.
Eta beste modu batean egiten duzu dantza.
Izan ere, zerbait ikusi duzu
eta ezin duzu ikusi gabe utzi.



5.
Larunbata gauaren bihotza
(1. zatia)

Tom Waits

Orraztu zara
bizarra egin
asteko beste egunen
aztarnak ezabatze asmoz
badakizulako larunbatean iritsiko zarela gailurrera

Gelditzen zara gorri dagoenean
jarraitzen duzu berde jartzean
zeren eta gau hau
inoiz ikusi gabekoa izango da
ziztu bizian bulebarretik behera
larunbata gauaren bihotzaren bila



6.
Azken taupada

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Jarri eskua hemen.
Makina honen bihotza zaurituta dago.
Mintza urratu zaio,
kolpe bakoitza kostatzen zaio,
dardara bakoitza azkena izan liteke.
Entzun.
Ez du inoiz soinu bera bi aldiz egiten.
Akats deitzen diogun hori
gertatu zaion guztiaren
arrastoa ere bada.
Jarri eskua hemen.
Ez dakizu zenbat kolpe geratzen zaizkion.
Ezta honen ondoren beste bat izango den ere.
Horregatik, dardara egiten duenean,
egin dardara harekin.
Isiltzen denean,
entzun zer geratzen den.
Eta taupadaka jarraitzen duen bitartean,
egin dantza.



7.
Larunbata gauaren bihotza
(2. zatia)

TOM WAITS

Esadazu
hori al da billarretako karraska
neoiaren burrunba?
telefonoak jotzen du
zure lehengusu txikia da
zerbitzariak irribarre egin al dizu begi bazterrarekin?
melankoliaren magia, malkoa zure begietan

Horrelako dardarak
min ematen du ariman
zeren eta beste garai bateko
larunbatekin egiten duzu amets
eta orain estropezuka zoaz
estropezuka zoaz
larunbata gauaren bihotzerantz.



8.
Oraindik iritsi ez den musika

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Jarri eskuak burdinaren gainean.
Zerbait mugitzen ari da,
oso urrun.
Burdinak badaki
guk baino lehen.
Entzun.
Agian tren bat da,
agian gerra,
agian oraindik jaio ez den ahots bat.
Munduak hitz egiten digu
ulertzen ikasi baino lehenago.
Jarri eskuak burdinaren gainean.
Lurrak ere badu taupada.
Oroimena ere badu.
Batzuek arriskua datorrela entzuten dute,
beste batzuek musika besterik ez.
Eta badira, gau osoan
dantzan aritu ondoren,
azkenean entzuten hasten direnak.



9.
Pianoa edaten aritu da
(zatia)

TOM WAITS

Pianoa edanean ibili da
ni gorbata lo dagoenean
eta taldea New Yorkera joan da
disko-jogailuak pixa egitera joan behar du
eta alfonbrak ile-mozketa bat behar du

Eta fokuak kartzela bateko ihesaldia dirudi
telefonoak ez duelako zigarretarik
eta terraza ligatzera joan da
eta pianoa edanean aritu da
edanean aritu da

Eta menu guztiak jelatuta daude
eta argiztatzailea itsu dago begi batetik
eta ezin du ikusi bestearekin
eta audifonoa darama piano-afinatzaileak
eta bere amarekin agertu zen
eta pianoa edanean aritu da
edanean aritu da
ez ni
ez ni
ez ni



10.
Lur azpian entzutea ere

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Gizon bat etzan egin da
eta belarria lurreratu du.
Eusten dio arnasari.
Agian lurrak gorde du
joan zirenen hitzen bat.
Agian galdutakoak
ezkutuan arnasten jarraitzen du.
Luzaro entzuten du.
Lurra isilik dago.
Orduan argi bat hurbiltzen zaio
iluntasunetik.
Esku batek sorbaldari eusten dio.
Beste batek ura eskaintzen dio.
Beste gorputz batzuek zirkulu bat osatzen dute
haren inguruan.
Eta lurraren azpian
erantzun baten bila
joandako gizonak
oraindik lur gainean dabiltzanak
aurkitzen ditu.



11.
Ordua
(1. zatia)

Tom Waits

Diru azkarrak Harlowen alde egin du
eta ilargia kalean dago
eta itzaletako mutikoak lege guztiak hausten ari dira
eta East St. Louisen ekialdean zaude
eta haizea hitzaldiak ematen ari da
eta euriak txalo-salba baten soinua egiten du

Eta Napoleon negarrez ari da Carnaval tabernan
ispiluan dago bere andregai ikusezina
eta musika taldea etxera doa
mailu-euria ari du, iltze-euria
bai, egia da, hark ez du hemen ezer egiterik



Eta ordua da, ordua, ordua
maitatzeko
eta ordua da, ordua, ordua

12.
Azken festa

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Igo bolumena.
Soinuak aurki dezala
atsekabea ezkutatu genuen lekua.
Zeharka dezala amorrua,
jo dezala beldurra,
dardarka jar dezala
geldirik dagoena.
Igo bolumena.
Gorputz zaurituek ere
gogoan dute nola dantzatu.
Dena galdu dutenek ere
besoak altxa ditzakete.
Zama mugimendu bihurtzen da.
Eta orduan,
dantzan ari den oinaren azpian,
lurra irekitzen da.
Kolpe bat.
Beste kolpe bat.
Gero, isiltasuna.
Musikak segundo batzuez jarraitzen du,
inork festa deitzerik ez badu ere.
Orain badakigu gure urratsen azpian
beste gerra bat zegoela.
Eta esnatzea ere izan daitekeela
lo jarraitzea bezain izugarria.

13.
Ordua
(2. zatia)

TOM WAITS

Tren baten modukoa da haien memoria
gero eta txikiagoa urrutiratu ahala
eta gogoratu ezin dituzun gauzek
agerian uzten dute ahaztu ezin dituzunak
istorio honek santu bana jartzen du amets bakoitzean

Hark esan zuen inguruan geratuko zela
bendak erori arte
baina kikil hauek ez dakite sekula noiz egin ospa
eta Matildak marinelei galdetu die ea otoitzak edo ametsak diren
beraz itxi begiak seme
ez dizu batere minik emango



Eta ordua da, ordua, ordua
maitatzeko
eta ordua da, ordua, ordua

14.
Jendeak dantzan darrai

SIRĀT FILMAREN ALDAERA

Basamortuaren amaieran tren bat dago.
Haren bagoietan doaz
etxea galdu dutenak,
bidea galdu dutenak,
iritsi nahi zuten lekua bera ere
galdu dutenak.
Inork ez du galdetzen
nork merezi duen han egotea.
Emakume batek eskua hartzen dio beste bati.
Gizon batek beste batentzako tokia egiten du.
Haur batek zerumugari begiratzen dio.
Trenbideko errailek lurra jotzen dute
aspaldiko erritmo batez.
Ttakun.
Ttakun.
Ttakun.
Entzun.
Musika da,
bizirik darraitenen
musika.



Ez dakigu
nora doan trena.
Ez dakigu
zer dagoen gure zain
basamortuaren beste aldean.
Badakigu, besterik ez,
bidaiak aurrera egiten duela.
Eta argia mendien atzean
desagertzen den bitartean,
hamaika gorputzek batera
egiten dute aurrera.
Mundu berri bat
hasi da
dantzan.



15.
San Diegoko serenata

Tom Waits

Ez nuen sekula goizik ikusi gau osoa esna eman nuen arte
Ez nuen sekula eguzkiaren argirik ikusi argia itzali zenuen arte
Ez nuen sekula nire herrialdea ikusi kanpoan denbora asko eman arte
Ez nuen sekula melodiarik entzun kantua behar izan nuen arte

Ez nuen sekula errepideko marrarik utzi zintudan arte
Ez nuen sekula behar zintudala jakin lokatzetan sartu nintzen arte
Ez nizun sekula maite zaitut esan alperrik madarikatu zintudan arte
Ez nituen nire bihotzaren zuntzak sentitu ia erotu nintzen arte

Ez nuen sekula ekialdea ikusi mendebaldera joan arte
Ez nuen sekula ilargiaren argirik ikusi dirdira egin eta deprimitu nintzen arte
Ez nuen sekula zure bihotza ikusi norbait lapurtzen saiatu zen arte
Ez nituen sekula zure malkoak ikusi aurpegitik erori zitzaizkizun arte

16.
Parranda

DAMIÁN PEDROSA

Zertarako bizi?
Lana egiteko
bizitzeko behar ditugun gauzak lortzeko.
Familia, taldea, komunitatea, herria… sortzeko
beste pertsonekin harremanetan sartzeko.

Bai, nahitaezkoak dira besteak,
natura
eguzkia
Baina, bapatean
gauzetatik kanpo sentitzeko beharra dugu
Nola?
Buelta bat ematen
jolasten
mendira igotzen…
eta baita parranda egiten ere.



Horretarako, ez dugu behar argirik,
ezta irekiak edukitzea begiak,
nahikoak dira kopak eskuetan,
musika gorputzetan
eta besteen presentziak mugimenduetan.

Orain bai,
sentipenek ahotsak eta pentsamenduak bazterreratzen dituzte,
gorputzaren dardarari eta maitasunei bidea ireki.
kezkarik gabeko gozamena bizi dugu
denbora neurrigabeko mugimendu bihurtuta,
parrandan ibiltzea bizitzea ere bada



—Mikro Irekia—

Dance Me to the End of Love

Leonard Cohen

Dantzan eraman nazazu zure edertasunera, biolin sutsu batez,
dantzan eraman nazazu izuan barrena, babespean bildu arte.
Altxa nazazu olibondo-adar bat bezala, nire etxerako usoa izan.
Dantzan eraman nazazu maitasunaren azkeneraino.

Utz iezadazu zure edertasuna ikusten, lekukoak joandakoan.
Utz iezadazu zure mugimendua sentitzen, Babilonian bezala.
Erakuts iezadazu poliki, mugak besterik ezagutzen ez diodan hori.
Dantzan eraman nazazu maitasunaren azkeneraino.

Dantzan eraman nazazu orain ezkontzara, eraman nazazu etenik gabe.
Dantzan eraman nazazu samur-samur, eraman nazazu luzaroan.
Biok gaude gure maitasunaren azpian, biok gaude haren gainetik.
Dantzan eraman nazazu maitasunaren azkeneraino.

Dantzan eraman nazazu jaiotzea eskatzen duten haurrengana.
Dantzan eraman nazazu gure musuek higatutako gortinetan barrena.
Eraiki orain kanpin denda bat, hari guztiak urratuta egon arren.
Dantzan eraman nazazu maitasunaren azkeneraino.



Dantzan eraman nazazu zure edertasunera, biolin sutsu batez.
Dantzan eraman nazazu izuan barrena, babespean bildu arte.
Uki nazazu esku biluziaz, edo uki nazazu eskularruaz.
Dantzan eraman nazazu maitasunaren azkeneraino.

—Mikro Irekia—

Bi baso bat ur

Metrokoadroka

Lea dut izena
eta kontatu nahi dizuet
zergatik ez naizen dantza egiteko gai.
Dantza egitea munduko gauzarik ederrena da.
Dantza egitea zure burua abandonatzea da.
Plazerera abandonatzea.
Baina niri, behin, norbaitek dantza egiteko gaitasuna lapurtu zidan.
Orain, mugitzen ikasi nahiko nuke berriro.
Nire irudimenean bada ere.

Testu hauek
dantza artean irakurri ziren
2026ko azaroaren 13an
Hernaniko Apeadero tabernan.




www.hkl.eus